



ARRAZTALO ELKARTEA

2016 URTEKO TXOSTENA

AURKIBIDEA

SARRERA.....	4
2016 URTEKO EKINTZEN BALORAZIOA.....	4
Lan eta gizarte integrazioa Oiartzunen.....	4
Helburu orokorrak.....	4
2016rako lan ildoak.....	4
2016ko ibilbidea.....	4
2017rako lan ildoak.....	5
Oarsoaldeko proiektua eta Aldura Elkartea.....	6
Helburu orokorrak.....	6
2016rako lan ildoak.....	6
2016ko ibilbidea.....	6
2017rako lan ildoak.....	6
Baratzak eta kontsumo taldea.....	7
Helburu orokorrak.....	7
2016rako lan ildoak.....	7
2016ko ibilbidea.....	7
2017rako lan ildoak.....	8
Ikastetxeak eta baratzetara bisitak.....	8
Helburu orokorrak.....	8
2016rako lan ildoak.....	8
2016ko ibilbidea.....	8
2017rako lan ildoak.....	8
Material didaktikoaren egokitzapena.....	9
Helburu orokorrak.....	9
2016rako lan ildoak.....	9
2016ko ibilbidea.....	9
2017ko lan ildoak.....	9
Enplegu Zentro Berezia.....	9
Helburu orokorrak.....	9
2016rako lan ildoak.....	10
2016ko ibilbidea.....	10
2017rako lan ildoak.....	10
Tailer irekiak.....	10
Helburu orokorrak.....	10
2016ko lan ildoak.....	11
2016ko ibilbidea.....	11
2017rako lan ildoak.....	11
Foru Aldundiarekin elkarlana.....	11

<u>Helburu orokorrak.....</u>	<u>11</u>
<u>2016ko ibilbidea.....</u>	<u>12</u>
<u>2017ko lan ildoak.....</u>	<u>12</u>
<u>ESKATUTAKO DIRU LAGUNTZAK.....</u>	<u>12</u>
<u>DIRU-KONTUAK.....</u>	<u>14</u>
<u>Balantzea.....</u>	<u>14</u>
<u>Diru-sarrerak.....</u>	<u>15</u>
<u>Gastuak.....</u>	<u>15</u>

SARRERA

Txosten honetan Arraztalo Elkartearen 2016ko ekintza nagusien laburpena jasotzen da. Batetik, Arraztalo sustatu, antolatu eta gauzatu dituen ekintza nagusien laburpena eta balorazioa egiten da.

Bestetik, diru kontuak azaltzen dira, diru-sarrera eta gastuen arabera sailkatuak.

2016 URTEKO EKINTZEN BALORAZIOA

Pasa den urte bukaeran jarritako lan-ildoak segika aurtan ere ekintza ugari egin dira. Jarraian ekintzaz ekintza, horien helburua, bilakaera eta etorkizuneko ildoak aipatzen dira.

Lan eta gizarte integrazioa Oiartzunen

Helburu orokorrak

- Helburu nagusia, Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa lortzea da.
- Lan integrazioa bultzatzeko nekazaritza ekologikoan lanpostuak sortzea.
- Gaixotasuna duten pertsonekin, senideekin, gizarte zerbitzuekin eta osasun arretako profesionalekin euren egoera egonkortzen eta hobetzen laguntzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen eta herritarren arteko harremanak bultzatzea eta sendotzea.

2016rako lan ildoak

Jarraian urte hasieran jarritako lan ildoak laburbiltzen dira:

- Gaur egun daukagun taldea egonkortzea eta giroa hobetzea. Laugarren langilearen egoera egonkortzea lortu nahi dugu, lan kontratu jarraitu bat egiteko.
- Langileen arduraduna psikologoarekin egiten ari den lanari jarraipena ematea. Tresnak garatzea eguneroko lan dinamikan sortzen diren zailtasunak gainditzeko. Tresna horiek praktikan jartzea.
- Langileen bilakaeraren jarraipena egiteko tresnak garatzea. Langileen egoeraren bilakaera aztertzeke dinamika sortzea, Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroko profesionalekin, Oiartzungo Gizarte Zerbitzuekin eta senideekin.

2016ko ibilbidea

Gaur egun, Arraztaloko baratzetako lan taldea gaixotasun psikikoa duten lau pertsonen eta arduradun batez osatua dago. 2016rako helburuetako bat, taldea osatzea zen, lau langilera

iritsi arte. 2015ean zehar langile batek osasun arazoak direla medio gora beherak izan zituen eta ez zen bere lanpostura guztiz egokitu. 2016ko apirilean, langile honen heriotza dela eta, ezin izan zen aurreikusita bezala taldea osatu.

Maiatzan, hutsik zegoen lanpostua betetzeko, Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroko arduradunekin pertsona berri bat kontratatzekeo prozesua hasi zen. Ekainan pertsona berri horrekin lan taldea osatu zen. Gizarte Zerbitzuekin, langile honekin eta senideekin irailean kontratua egitea adostu zen.

Kontratazio berri honen harira, kontratazioen prozesua adosteko beharra ikusi zen. Adostutakoaren arabera, Arraztalok Oiarzungo Gizarte Zerbitzuekin eta Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroarekin izangaien proposamenak eskatuko ditu. Hiru eragileen artean profilak aztertuko dira eta egokiena aukeratuko da. Era berean, Oarsoaldea Garapen Agentziak lanpostua eskaintza publikoan ere jarriko du.

2016rako jarritako beste helburuetako bat senideekin eta gaixotasuna duten langileekin lanari buruzko jarraipen bat egiteko ekintzak martxan jartzea da. Gizarte Zerbitzuekin eta Osasun Mentaleko Zentroarekin izandako bileretan behar hau aipatu da eta Oarsoaldea Garapen Agentziak hutsunea bete dezakeela uste da. Horregatik, urte bukaeran egindako bileretara Oarsoaldeko lan teknikariak etorri dira. Beraiekin adostu da agentziako lan teknikari bat hasiko dela familiarekin, langileekin eta Arraztalorekin euren bilakaeraren jarraipena egiten. 2017an ekimen hau martxan jartzea espero da.

Baratzetako arduradunak psikologoarekin eguneroko lan dinamika hobetzeko tresnak ikasten jarraitu du.

2017rako lan ildoak

- Langile berriaren egokitzapena bukatzea.
- Langileen lanaren jarraipena egiteko dinamika martxan jartzea.
- Langileeni laguntza psikologikoa eskaintzeko aukerak aztertzea. Ekintza honen helburua, langileen errekupeazioan ikusten diren hutsuneak betetzea da. Lanak berak onurak dituen arren, oraindik ere sozializazioan, harremanetan eta adierazpenean zailtasunak dituztela nabaria da. Horregatik, dagoeneko martxan dagoen lan dinamika baliatuz, terapia moduko bat jarri nahi da martxan, baina lanean txertatua. Ez gaude ziur terapia, lanetik bereizita egiteak nahi ditugun emaitzak lortuko dituenik. Ondorioz, bi lan nagusi ditugu:
 - Laguntza psikologikoa emateko metodologia zehaztea. Horretarako agian bertatik bertara psikologo batek baratzetan egiten den lana ikusi beharko luke.
 - Laguntza psikologikoa emateko finantziazioa aurkitzea.
- Enpresa arruntetan gaixotasun psikikoa duten pertsonak kontratatzekeo kanpaina egitea. Oarsoaldea Garapen Agentziarekin enpresetara Arraztalo eta Aldura Elkarteak hurbiltzeko plangintza egitea.

Oarsoaldeko proiektua eta Aldura Elkartea

Helburu orokorrak

- Gaixo psikikoen lan-integrazioa bultzatzeko lanpostuen sorrera, tokian tokiko elkarteak sustatuz, baratzak sustatuz.

2016rako lan ildoak

- Eskualdeko beste herrietako senideek euren elkarteak sortzea.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlan bideak hastea, eskualdeko senide guztien laguntzaz.

2016ko ibilbidea

2015ean egindako Oarsoaldeko proiektuaren emaitza nagusia Aldura Elkartea da. Elkarte honek Errenteria, Pasaia eta Lezoko gaixotasun psikiko duten pertsonak eta senideak biltzen ditu. Hasiera batean helburua herri bakoitzean talde bat sortzea bazen ere, Pasaian eta Lezon ez dira elkarte bat sortzeko adina pertsona lortu.

2016 urtea Aldurak inguruko erakunde eta eragileekin lehenengo kontaktua egiteko erabili du. Aurrerago azalduko diren tailerren antolaketan ere parte hartu du, eskualdean ezagutarazteko aukera izan duelarik.

Lan integrazioari dagokionean, bi aktibitate aztertzen ari dira:

- 1) Eskola baratzeen kudeaketa. Errenteriako Udalarekin eta Orereta Ikastolarekin elkarlanean dabilta ikastetxeetan baratzak martxan jartzeko. Alduraren helburua baratza horien kudeaketan gaixotasun psikikoa duten pertsonentzat lanpostuak sortzea litzateke.
- 2) Kafe hondarren birziklapena. Ekonek enpresarekin kafe hondarrek nekazaritza ongarri gisa erabiltzeko propietaterik baduten aztertzen ari dira. Alduraren helburua kafe hondar horiek jasotzen eta birziklatzen lanpostuak sortzea litzateke.

2017rako lan ildoak

- Lan integrazioarako lanpostuak sortzeko aktibitatea aukeratu eta definitzea.
- Azterketa soziologikoa egitea. Gaixotasun psikikoa duten pertsonak Oarsoaldean zein egoeratan bizi diren jakiteko datuak bildu eta azterketa sakona egitea. Gizarte Zerbitzuen, Osasun Mentaleko Sarearen, Udalen, Foru Aldundiaren, gaixotasuna duten pertsonen, senideen eta Lanbideren datuak bateratu eskualdearen argazki zehatza lortzeko.

Baratzak eta kontsumo taldea

Helburu orokorrak

- Bertakoak, ekologikoak eta sasoiari-sasoikoak diren barazkiak eta sagardoa merkaturatzea.
- Gaixotasun psikiko duten pertsonen gizarte integratzean lagunduko duen herritar talde baten konprometua lortzea.
- Inguruko ekoizleak kontsumo taldera erakartzea.

2016rako lan ildoak

- Kontsumo taldea handitzeko eta antolaketa hobetzeko laugarren baratza jartzeko lursaila lortzea.
- Kontsumo taldea handitzea, langileen lan baldintza eta ahalmenak kontuan hartuz.
- Ziurtagiri ekologikoa lortzeko prozesua bukatzea.
- Urte osorako beharrezkoak diren hazi eta landareen plangintza egitea.
- Hazi propioak lortzeko prozesua martxan jartzea.
- Laboreen liburuarekin baratzeei jarraipen zehatza egiteko prozesuak hobetzea.

2016ko ibilbidea

Baratzeei dagokionean, aurtengo berritasun nagusia Makutson lortu dugun lursaila da. Honekin, Arraztalok 4 lursail ditu eta ia 17000 m² baratze eta 12000 m² sagasti kudeatzen ditu. Oiarzungo Udalak Behemendiren bitartez egindako esleipenaren bidez lortu dugu lursail berri hau. Egin beharreko prestaketa lanak bukatuta, urrian hasi ziren langileak bertan baratza lanetan. Lursail honen helburu nagusia ez da barazki gehiago ekoiztea bakarrik, antolaketa hobetu eta beste lursailen karga arintzea ere bada.

Kontsumo taldeari dagokionean, urte bukaeran 35 kideetik 40 kidera handitu dugu. Honekin, baratzeek eta langileek eman dezaketen guztia baliatzen ari garela uste dugu. Horrez gain, kontsumo taldean aurtengo berritasuna eskaeren kudeaketa parte hartzailea izan da. Uda aurretik arrautzen eta gaztaren eskaerak jaso eta produktuen banaketa egiteko txandak antolatu ziren kontsumo taldeko kideen artean. Horrela, lan hau txandaka egingo da kide guztien artean.

Ziurtagiri ekologikoa lortzeko prozesuaren bigarren urtea pasa dugu, eta hurrengo urte hasieran behin betiko ziurtagiria lortzea espero dugu. Ziurtagiria lortzeko prozesuak ondorio zuzenak ekarri ditu. Batetik, erabili beharreko hazi eta landareak hornitzaile jakin batzutatik ekartzea behartu gaitu, horrek produktuen kostua handitu eta logistika zaildu du. Bestetik, lan egiteko era ere aldatu behar izan da, baratzetan egin beharreko jarraipena handiagoa baita. Guzti honen ondorio nagusia hazi eta landare propioen ekoizpena martxan jartzea izan da.

2017rako lan ildoak

- Ziurtagiri Ekologikoa lortzeko prozesua bukatu eta publikoan erabiltzen hastea.
- Makutsoko baratzak martxan jartzen bukatzea.
- Produktuak merkaturatzeko bide berriak aztertzea: ikastetxeetako jangelak, Labore, eragileak eta festak, merkataritza txikia.
- Hazi eta landare propioak lortzeko prozesua hobetzea.

Ikastetxeak eta baratzetara bisitak

Helburu orokorrak

- Herriko haurren sentsibilizazioa lortzea, buruko gaixotasunen eta buruko osasunari dagokionean.
- Arraztalo Elkartearen ekintzen berri ematea, baratzetan egiten den lana laburbilduz.
- Herriko haurrak nekazaritzara hurbiltzea.

2016rako lan ildoak

- Ikastetxeetatik ditugun bisitak egonkortzea eta ikaste programan Arraztaloren baratzak txertatzea.
- Baratzetan egiten den prozesua hasieratik bukaerara erakustea, landaketatik kontsumo taldean baratzkiak saltzen diren arte. Horretarako, ikastetxeekin aztertu beharko dugu ikasleak kontsumo taldearen banaketa ikustera joaterik izango luketen gurasen laguntzaz.

2016ko ibilbidea

2016an ikastetxeetatik jaso ditugun bisitak bere horretan mantendu dira. Esan dezakegu euren programazioetan kontuan hartzen gaituztela eta urtero etortzeko asmoa dutela. Elizaldetik, Ikastolatik eta udalekueetatik talde ugari etorri zaizkigu urte osoan zehar. Batzuk udaberrian etortzen dira landaketak egitera. Beste batzuk sagar bilketan laguntzen dute.

2017rako lan ildoak

- Aurten ez da lortu bisitak kontsumo taldearekin lotzea. Interesgarria litzateke baratzetako lana ezagutzeaz gain, ikasleek kontsumo taldea ere ezagutzea.
- Sentsibilizazioa ikasgeletara eramatea, nekazaritzaz gain gurea proiektu sozial bat dela ikusteko. Horretarako hurrengo atalean azalduko den unitate didaktikoaren lanketarekin lotu beharko ditugu bisitak.

Material didaktikoaren egokitzapena

Helburu orokorrak

- Buruko Osasunari eta gaixotasun psikikoei buruzko oinarrizko ezagutzak ikastetxeetan zabaltzea.
- Irakasle eta gurasoei hurrekin buruko osasuna lantzeko euskarri bat ematea.
- Barazetako bisitei jarraipen bat ematea ikaste programan buruko osasunari buruzko ezagutzak txertatuz.

2016rako lan ildoak

- Material didaktikoaren egokitzapena bukatzea. Batetik, itzulpenaren zuzenketa egitea. Bestetik, material didaktikoan gaixotasun psikikoari buruz ematen diren datuak gure herriko edo eskualdeko datuekin osatu behar ditugu.
- Material didaktikoaren diseinu grafikoa egitea.
- Ikastetxeekin batera material didaktikoa ikaste programan txertatzeko lehenengo pausoak ematea.
- Material didaktikoa 2016-2017 ikasturte hasierarako prest edukitzea.

2016ko ibilbidea

Aurten material didaktikoaren lehenengo atala bukatzea lortu dugu. LH 5 eta 6 mailatan erabiltzeko da eta prest dago. Materialarentzat webgunean informazio gehiagarria zintzilikatu da, bideoak, artikulak eta abar.

Oiartzungo ikastetxeekin eta Irungo berritzegunearekin lehenengo kontaktuak egin ditugu, unitate didaktikoaren erabilpena eskoletan txertatzeko aukerak aztertzeko.

2017ko lan ildoak

- Unitate didaktikoa gutxienez eskola batean txertatzea. Horretarako lehenik eta behin zuzendaritzarekin eta ikasketa buruekin adostasuna lortu beharko dugu metodologiari buruz. Ondoren gurasoekin ere saioak egitea aurreikusten da.
- Beste mailatarako unitate didaktikoak egokitzen hastea.
- Barazetara egiten diren bisitekin unitate didaktikoaren proiektua lotzea.

Enplegu Zentro Berezia

Helburu orokorrak

- Arraztaloren lan integrazio proiektua egonkortzeko Enplegu Zentro Berezia sortzea.
- Enplegu Zentro Bereziaren bitartez beste erakundeak inplikitzea.

2016rako lan ildoak

- Eusko Legebiltzarrean 2015eko bukaeran aurkeztu zen mozioari jarraipena egitea.

2016ko ibilbidea

Urte honetan, Enplegu Zentro Bereziaren gaian bi lan ildo nagusi izan ditugu. Batetik Eusko Legebiltzarreko bidea jorratu dugu. Bertan EHBildu eta PSE-ren taldeen bitartez Enplegu Zentro Berezien legediari buruzko eztabaida auspotzeko aukera izan dugu.

Ekainan berriz ere mozio bat aurkeztu zen Gizarte Politikako Sailari Enplegu Zentro Berezien erregistroa sortzeko eskatuz. Mozioa legebiltzarrak aho batez onartu zuen.

Bien bitartean, Arraztalo eta Aldurako kideak Lanbideko zuzendariarekin bilera bat izan genuen uztailan, gure egoera azaltzeko. Bertan jaso genuen erantzunaren arabera, legediaren zirriborroa prest dago, baina oraindik txosten pare bat falta dira legebiltzarrera eramanez ahal izateko. Lanbidetik argi utzi dute hau ez dela desgaitasuna duten pertsonen lan integrazioa arautzeko jarraitu nahi zuten bidea, azterketa sakonago bat egin nahi baitute. Beste legedirik gabe Enplegu Zentro Berezien erregistro bat sortzeak, ondoren errekurtsioak ekarri eta gaia atzeratu dezake.

Bestalde, Legebiltzarreko bidetik ez genuela ezer lortzen ikusirik, Arartekoan idatzi bat aurkeztu zen gaia azalduz abuztuan. Abenduan erantzuna jaso da. Erantzun hori uztailan lanbiden jasotakoaren oso antzeko da, baina oraingo honetan atzerapena justifikatzeko irailan izandako hauteskundeak aipatzen dira. Arartekoaren erantzuna VI. eranskinean ikus daiteke.

Azkenik aipatu behar dugu, erregistroa sortzeko dekretuaren zirriborroa lortu dugula eta horren arabera etorkizunerako gure Enplegu Zentro Bereziaren plangintza ekonomikoa prestatzen ari garela. Lan honetan Oarsoaldea Garapen Agentziaren laguntza dugu. Gure helburua erregistroa martxan jartzen denerako beharrezko plangintza egina eduki eta baldintza guztiak betetzen ditugula ziurtatzea da.

2017rako lan ildoak

- Enplegu Zentro Berezia sor dadin Legebiltzarreko bidea berriz ere martxan jartzea. Hauteskundeak egin ondoren egon den geldialdia pasata, berriz ere gaia martxan jarri nahi da, behar adina mozio aurkeztuz.
- Oarsoaldearekin zentroaren plangintza egitea eta baldintza guztiak betetzeko pausoak ematen jarraitzea.

Tailer irekiak

Helburu orokorrak

- Herritarrak buruko osasunari eta gaixotasun psikikoei buruz sentsibilizatzea.
- Buruko osasunaren esparruan lan egiten duten profesionalen lana ezagutaraztea.

2016ko lan ildoak

- 2016an gutxienez bi hitzaldi antolatzea.
- Hitzaldietarako interesgarria ikusten da, haurren eta nerabeen buruko osasunaz hitz egingo duen norbait ekartzea.

2016 ibilbidea

Aurtengo sentsibilizazio ekintzak antolatu aurretik hausnarketa bat egin zen hauen formatuari buruz. Hitzaldietan gaixotasun psikikoaren inguruko aditu bat ekarri izan dugu bere ikuspuntua azaldu zezan. Galde erantzunen atalean berriz, kontzientzia handia duten pertsonak bakarrik parte hartu izan dute. Horrek sentsibilizazioari dagokionean emaitza eskasak dituela ikusi dugu.

Horregatik, aurtengo tailer irekiak antolatu ditugu. Tailer horien helburua gaixotasun psikikoaren inguruan dauden kolektibo ezberdinak hartu-eman horizontaleko foro batean biltzea izan da. Kolektibo horien artean honakoak daude:

- Gaixotasun psikikoa duten pertsonak
- Senideak
- Herritarrak
- Osasun sistemako langileak
- Erakundeetako langileak
- Politikariak

Tailer hauetan, ekintza ezberdinen bidez gaixotasun psikikoaren inguruko hausnarketak bildu nahi izan dira, parte hartzaile guztien ikuspuntuak kontuan hartuz.

Guztira lau tailer egin dira, Oarsoaldeko herri bakoitzean bat. 91 pertsonak parte hartu dute, gehienak senideak. Gaixotasun psikiko duten pertsonak, Osasun Mentaleko Zentroko langileak, Gizarte Zerbitzuetako langileak eta politikariak ere izan dira. Baita gaixotasun psikikoarekin zer ikusirik ez duten herritarrak ere.

Tailerretan jasotako ideia eta testigantza guztiekin txosten bat prestatuko da 2017ko lehen hiruhilabetean. Txosten horretatik etorkizunerako lan ildoak aterako dira, bai sentsibilizazioari dagokionean baita gizarte integrazioan egin beharreko lanari dagokionean.

2017rako lan ildoak

- Tailer irekien ondorioak ateratzen ditugunean, hauekin hurrengo urterako sentsibilizazio ekintzak diseinatzea izango da lehenengo helburua.

Foru Aldundiarekin elkarlana

Helburu orokorrak

- Foru Aldundiarekin elkarlan egonkorra lortzea

2016ko ibilbidea

2016ko lan ildoetan, Foru Aldundiarekin elkarlana sendotzea jarrita zegoen. 2015ean hau lortzeko bide bakarra, 2014ko aurrekontu parte hartzaileak izan ziren. Dena den, Gizarte Politikako Saitetik argi utzi ziguten hau behin behineko konponbide bat besterik ez zela.

Aurrekontu Partehartzaileen bidea agortuta, Alduraren sorrera baliatuz Gizarte Politikako sailarekin eta diputatuarekin bilera izan genuen uda aurretik. Bilera horretan esku artean genituen gaiak azaldu eta etorkizuneko lan ildoak proposatu genituen. Bilera horretatik ez genuen ondorio argirik atera.

2017ko aurrekontuen prestaketa lanetan ari ginela, aurrekontua egonkortu eta falta zaigun finantziarioa lortzeko berriz ere Gizarte Politikako Sailarekin harremanetan jarri ginen 2016ko abenduaren hasieran. Abenduaren 23an izan genuen berriz ere bilera eta jarrera aldaketa bat ikusi dugu.

Batetik 2017rako gure aurrekontuan falta dena betetzeko finantziarioa emango dutela hitz eman digute. Arraztalotik beti bilatu izan dugu hau, gaixotasun psikikoa duten pertsonen errekupeazioan lana ezinbestekoa delako. Eta pertsona horiek Gizarte Politikako Sailaren ardura dira.

Bestetik, Aldunditik azaldu digute lan integrazioaz arduratzeko teknikari berri bat hartuko dutela, orain arte gai hori landuko duen pertsonarik ez baitzuten. Gure ikuspuntutik hori oso garrantzitsua da, Arraztaloren ekimen nagusiaz hitz egiteko aldundian erreferentziatzeko pertsona bat izango baitugu.

2017ko lan ildoak

- 2016ko azkeneko bileran aipatutako konpromezuak gauzatzeko baliabideak jartzea.
- Lan integrazioaren gaia Aldundiarekin batera lantzeko urratsak ematea.

ESKATUTAKO DIRU LAGUNTZAK

Diru-laguntza	Kopurua	Helburua	Onartua	Oharrak
Oiartzungo Udala	45.000 €	Oiartzungo gaixo psikikoen lan eta gizarte integrazioa	BAI	Oiartzungo Udalarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren baitan adostutako diru-laguntza
GFA: Gizarte esku hartzeko programak gauzatzeko diru-laguntzak	6.000 €	Sakontzen: lan integrazioa hobetzeko terapia psikologikoa	EZ	Herri mailako ekimena
GFA: Prebentzioko eta sensibilizazioko programak egiteko diru-laguntzak	7.900 €	Gaixotasun psikikoari buruzko tailer irekiak	BAI	Eskatutakotik 1306 € bakarrik

GFA: Ekipamendua erosteko diru-laguntzak	828,85€	Biltegian jartzeko apalak	BAI	Eskatutako guztia jaso da
EJ: Kalitate bereizgarrietan parte hartzeko laguntzak	1.052,64 €	Kalitate bereizgarrietan lehen aldiz parte hartzen duten eragileei laguntzea	BAI	Lursailen azaleraren araberakoa

DIRU-KONTUAK

Balantzea

DATA	KONTZEPTUA	SARRERA	GASTUAK	BALANTZEA
2016-01-01	KUTXA K.K.			10.948,04 €
	CAIXA K.K.			1.731,62 €
	Guztira			12.679,66 €
URTARRILA- ABENDUA	Kontsumo Taldea (Kutxa+Caixa)	21.530,00 €	-50,00 €	21.480,00 €
	Maileguak	10.043,81 €	-4.000,00 €	6.043,81 €
	Soldatak	0,00 €	-45.792,64 €	-45.792,64 €
	IRPF	0,00 €	-4.258,02 €	-4.258,02 €
	Gizarte Segurantza	0,00 €	-20.781,86 €	-20.781,86 €
	Udala	45.000,00 €	0,00 €	45.000,00 €
	Kutxa	9,50 €	-9,50 €	0,00 €
	Baratzak eta funtzionamendu gastuak	0,00 €	-6.647,14 €	-6.647,14 €
	Aldundia	1.306,00 €	0,00 €	1.306,00 €
	Aseguruak	0,00 €	-1.381,13 €	-1.381,13 €
	Argindarra	0,00 €	-68,40 €	-68,40 €
	Ura	0,00 €	-192,26 €	-192,26 €
	Asesoria	0,00 €	-1.432,64 €	-1.432,64 €
	Caixa	0,00 €	-50,67 €	-50,67 €
	Eusko Jauriaritza	1.052,64 €	0,00 €	1.052,64 €
	Beste	0,00 €	-1.562,19 €	-1.562,19 €
		Guztira	78.941,95 €	-86.226,45 €
2016-12-31	KUTXA K.K.			3.364,21 €
	CAIXA K.K.			2.030,95 €
	Guztira			5.395,16 €

Diru-sarrerak

Diru sarrera nagusiak kontsumo taldeko kuotak eta udalaren diru laguntza izan dira. Honekin urteko gastuen %80ari aurre egitea lortu da, beste %20a falta izan delarik. 2015ean egindako EREari esker, aurten falta den aurrekontuaren %20a aurreztu zen. Balantzea negatiboa izan arren, urte bukaerako saldoa positiboa izango da, urtea 12.000 €-rekin hasi baitzen.

Hala ere, urte hasieran diru-laguntzak kobratu arte dagoen denbora tartean ordainketak egin ahal izateko, elkarteko kide batek Arraztalori behin behineko mailegua egin beharko diola erabaki da.

Gastuak

Gastu nagusiak langileen soldatak, gizarte segurantza eta IRPF zergak izan dira.

Baratzetan egindako lanak ere gastuak sortu ditu: tresneria, landareak, haziak eta ura. Aktibitate honek kudeaketa gastuak era baditu, aholkularitza eta aseguruetan.

Aurten ere baratzeko gastuak handitu dira, bi arrazoi direla eta. Batetik, ziurtagiri ekologikoak hazi eta landaren garestiagoak erostea dakar. Bestetik, Makutsoko lursaila prestatzeko gastu bereziak egon dira.